mendi ibilbideak EUSKADI senderismo EUSKADI

HIRU TENPLUEN BIDEA
# GR-120
RUTA DE LOS TRES TEMPLOS



EU / ES

# GR-120 Hiru Tenpluen ibilbidea
*Ruta de los Tres Templos*

## Horrelakoa da

San Ignazio Loiolakoaren pausoei jarraikiz, GR-120 ibilbideak aukera polita eskaintzen digu Loiola eta Arantzazu arteko bidea Antioko Baselizan barrena egiteko. Bide horri Hiru Tenpluen Ibilbidea esaten zaio. Ibilbideak Urola Erdia, Urola Garaia eta Debagoieneko inguru eta bazter ederrak zeharkatu eta eskualdeko hiru monumentu adierazgarriak lotzen ditu: Loiolako Santutegia (Azpeitia), Antioko Baseliza (Zumarraga) eta Arantzazuko Santutegia (Oñati). Hirurak ere inguru eder-ederretan kokatuak daude, eta bakoitzak bere estilo bereizgarria du bai arteari bai arkitekturari dagokionez. Era askotako paisaiak dira, denak gozamen ederra begietarako, ahaztu gabe historiari, arteari eta kulturari begira duten balioa, ezta tenpluek arimari eta barne-gogoari begira duten garrantzia ere.

Hiru Tenpluen ibilbideko bi muturrak San Ignazio Loiolakoa erromesaren bidez lotuta daude. Jaunarenganako barne gurutzada hasita, prest zegoen Montserrateraino erromes joateko. Eta 1522ko egun batez, erromesaldiari ekin zion, Loiolatik abiatuta. Arantzazura iritsi eta, gauez, eliza barruan beilari egon zenean, arima hunkitua gelditu zitzaion. Arantzazuko Amaren oinetan izan zuen bizipena gutun batean islatua gelditu zen; Erromatik San Frantzisko Borjakoari idatzitako gutunean, hain zuzen.

## *Así es*

*Siguiendo los pasos de San Ignacio de Loyola, alcanzamos la huella del GR-120, conocida como la Ruta de los Tres Templos. Esta ruta recorre bellos entornos y parajes de las comarcas de Urola Erdia, Urola Garaia y Debagoiena enlazando sus tres monumentos más significativos; el Santuario de Loiola en Azpeitia, la ermita de La Antigua en Zumarraga y el Santuario de Arantzazu en Oñati. Estos tres edificios enclavados en lugares de singular belleza natural, representan tres estilos artísticos y arquitectónicos claramente diferenciados. A la variedad de su paisaje, al incuestionable valor histórico-artístico y cultural, debemos añadir su indudable valía espiritual y emocional.*

*Los dos extremos de la ruta de los Tres Templos se encuentran unidos por el peregrino San Ignacio de Loiola. Iniciada su cruzada interior hacia el Señor, se disponía a peregrinar hasta Montserrat. Y un día de 1522 emprendió su peregrinaje desde Loiola. Cuando llegó a Arantzazu y veló una noche en el cuerpo de su iglesia, su ánima quedó marcada. La experiencia vivida a los pies de la Madre de Arantzazu queda reflejada en la carta escrita desde Roma a San Francisco de Borja.*

## Kokapena eta sarbideak

GR-120 Urola Kostako, Goierriko eta Debagoieneko eskualdetan barrena doa; hiru eskualdeak Gipuzkoako lurralde historikoaren mendebaldean daude. GR Azpeititik hurbil abiatzen da eta, herri horretara iristeko, GI-631 eta GI-2634 errepideak hartuko ditugu.

- **Donostiatik abiatuta,** A-8 edo N-634 hartuko dugu, Bilborantz, eta GI-631tik aterako gara.
- **Bilbotik abiatuta,** A-8 hartu eta GI-2634tik aterako gara, Azkoitiraino. Gero, GI-631n jarraituko dugu.
- **Gasteiztik abiatuta,** A-1 hartu, GI-632tik atera eta Urretxuraino joango gara; bestela, A-627 hartu eta gero, GI-627 errepidea, Bergararaino. JGI-631n barrena jarraituko dugu.

## *Ubicación y accesos*

*El GR-120 discurre a través de las comarcas de Urola Costa, Goierri y Debagoiena, ubicadas en el sector occidental del territorio histórico de Gipuzkoa. La aproximación a la población de Azpeitia, próxima al lugar de inicio del GR, se realiza por la GI-631 y GI-2634.*

- ***Desde Donostia-San Sebastián** por la A-8 o N-634 en dirección Bilbao y salida por la GI-631.*
- ***Desde Bilbao** por la A-8 y salida por la GI-2634 hasta Azkoitia. Continuar por la GI-631.*
- ***Desde Vitoria-Gasteiz** por la A-1 y salida por la GI-632 hasta Urretxu o por la A-627 y a continuación por la GI-627 hasta Bergara. Continuar por la GI-631.*



Pagadi magikoa
*Hayedo mágico*
© Basquetour




## Beste ibilbide batzuk Euskadin
*Otros senderos en Euskadi*

- **Oinez Urdaibain barrena**
  ***Caminando por Urdaibai***
- **Oinez Arabako Mendialdean barrena**
  ***A pie por la Montaña Alavesa***
- **Debagoieneko ibilbideak eta ibilaldiak**
  ***Rutas y paseos por Debagoiena***
- **GR-38, Ardoaren eta Arrainaren ibilbidea**
  ***GR-38, Ruta del Vino y del Pescado***

## Etapak
*Las etapas*

| # | Etapa *Etapa* | Zailtasuna *Dificultad* | Distantzia *Distancia* | Desnibel *Desnivel* | Denbora *Tiempo* |
|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Loiola - La Antigua | | 15,1 km | 835 m | 4:00 |
| 2 | La Antigua - Brinkola | | 16,5 km | 586 m | 4:00 |
| 3 | Brinkola - Arantzazu | | 10,7 km | 762 m | 3:30 |

Zailtasun txikia *Dificultad baja* · Zailtasun ertaina *Dificultad media* · Zailtasun handia *Dificultad alta*

### 1. ETAPA *ETAPA 1* — GR-120 LOIOLA - LA ANTIGUA

**› SARBIDEA**
Donostiatik abiatuta, N-I hartu eta Tolosan GI-2634 errepideari heldu, Azpeitia eta Loiola auzoraino eta Santutegiraino, ibilbidearen abiapuntua baita.

**› IBILBIDEA**
Loiolako Santutegia, Igarate, Pagotxeta, Antioko Baseliza.

**› TOKI INTERESGARRIAK**
Loiolako Santutegia, Antioko Baseliza.

**› IBILBIDEAREN DESKRIBAPENA**
Ibilbide luze hau Azpeitian hasten da, Loiolako Santutegian; XVII. eta XVIII. mendeetan eraikitako monumentu gune ikusgarria da. Izarraitz kareharrizko mendigune puska handiaren oinetan, gure bidea Zumarragako Antioko Baselizaraino iritsiko da, Igarateko eta Pagotxetako lepoetan barrena.

***› ACCESO***
*Desde Donostia-San Sebastián por la N-I y desvío en Tolosa por la GI-2634 hasta Azpeitia y el barrio de Loiola y su santuario, punto de partida del itinerario.*

***› ITINERARIO***
*Santuario de Loiola, Igarate, Pagotxeta, La Antigua.*

***› LUGARES DE INTERÉS***
*Santuario de Loiola, Ermita La Antigua.*

***› DESCRIPCIÓN DE LA RUTA***
*Este largo recorrido se inicia en Azpeitia, en el conjunto monumental del Santuario de Loiola, impresionante conjunto monumental construido entre los siglos XVII y XVIII. Al pie de la mole calcárea de Izarraitz, nuestro camino se dirige a través de los collados de Igarate y Pagotxeta hasta la ermita de La Antigua en Zumarraga.*



Loiolako Santutegia
*Santuario de Loiola*
© Basquetour



Inguruне zoragarriak
*Agradables entornos*
© Basquetour



Aizkorriko mendilerroako paisaia
*Paisaje de la sierra de Aitzkorri*
© Mikel Arrazola

### 2. ETAPA *ETAPA 2* — GR-120 LA ANTIGUA - BRINKOLA

**› SARBIDEA**
Donostiatik abiatuta, N-I hartu eta, Beasainen, GI-632ri helduko diogu Zumarragaraino. Zumarragan, Antioko Baselizara doan GI-3801 errepidea hartuko dugu.

**› IBILBIDEA**
Antioko Baseliza, Zumarraga, Irazola baserria, Atagoiti, Santa Marina, Mirandaola, Telleriarte, Brinkola.

**› TOKI INTERESGARRIAK**
Antioko Baseliza, Zumarraga, Santa Engrazia Ermita, Aztiriako Santa Marina Baseliza, Mirandaolako Santikutz Ermita, Telleriarte Auzoa, Igaraldeko errota, Urola ibaiko olak.

***› ACCESO***
*Desde Donostia-San Sebastián por la N-I y desvío en Beasain por la GI-632 hasta la localidad de Zumarraga. Desde aquí tomar la carretera GI-3801 que accede a la ermita de La Antigua.*

***› ITINERARIO***
*La Antigua, Zumarraga, caserío de Irazola, Atagoiti, Santa Marina, Mirandaola, Telleriarte, Brinkola.*

***› LUGARES DE INTERÉS***
*Ermita La Antigua, Zumárraga, Ermita de Sta. Engracia, Ermita de Sta. Marina de Aztiria, Ermita de Santa Cruz de Mirandaola, Barrio Telleriarte, molino de Igaralde, ferrerías del Urola.*



La Antigua baselizako gunea
*Zona de la ermita de La Antigua*
© Basquetour

**› IBILBIDEAREN DESKRIBAPENA**
Baserri giroan murgilduta, bidea mendian gora doa, Argixao eta Trapalata mendien begiradapean; baso zabal handiak bazter guztiez jabetuko dira. Bideak beharturik, Aizaleku mendi puska inguratu eta Santa Marinara iritsiko gara; hau da, Aztiriako oinetan dagoen baselizara. Legazpitik hurbil, iduri du giroa garai bateko burdin baltsamoz zipriztintzen dela, eta Mirandaola Parkeak omenaldia eskaintzen dio antzinako jarduera horri.

***› DESCRIPCIÓN DE LA RUTA***
*Sumergidos en un ambiente rural el camino va ganando altura bajo la vigía de los montes Argixao y Tralapata, y la potestad del paisaje pasa a manos de la inmensa foresta. El camino nos obliga a bordear la mole de Aizaleku y nos entrega a Santa Marina, ermita a los pies de Aztiria. Próximos a Legazpi el ambiente parece impregnarse del bálsamo férrico de antaño y el Parque de Mirandaola rinde un homenaje a tan atávica actividad. Nuestro camino prosigue hasta Brinkola, la antesala del Parque Natural de Aitzkorri.*



Atseden bat hartzen
*Tomando un descanso*
© Basquetour

### 3. ETAPA *ETAPA 3* — GR-120 BRINKOLA - ARANTZAZU

**› SARBIDEA**
Donostiatik abiatuta, N-I hartu eta, Beasainen, GI-632ri helduko diogu Zumarraga herriraino. Hegoalderantz jarraituko dugu, GI-2630 hartuta; Legazpi zeharkatuko dugu Telleriarte auzoraino eta GI-3511 errepideari helduko diogu, Brinkolara joateko.

***› ACCESO***
*Desde Donostia-San Sebastián por la N-I y desvío en Beasain por la GI-632 hasta la localidad de Zumárraga. Continuar hacia el sur por la GI-2630 atravesando Legazpi hasta el barrio de Telleriarte y tomar el desvío por la GI-3511 hasta Brinkola.*



Arantzazuko Monasterioa
*Monasterio de Arantzazu*
© Basquetour

**› IBILBIDEA**
Brinkola, Barrendiolako Urtegia, Arantzazuko Monasterioa.

**› TOKI INTERESGARRIAK**
Barrendiolako Urtegia, Arantzazuko Monasterioa.

***› ITINERARIO***
*Brinkola, Embalse de Barrendiola, Monasterio de Arantzazu.*

***› LUGARES DE INTERÉS***
*Embalse de Barrendiola, Monasterio de Arantzazu.*



Ibilbideen seinaleztapena
*Recorridos bien señalizados*
© Basquetour

**› IBILBIDEAREN DESKRIBAPENA**
Ibilbideak burdinolen jarduera garrantzitsuaren gaineko lekukotasuna eskaintzen digu, Urola ibaiko ur jaioberrien ondoan. Barrendiolako urtegia igaro ondoren, gure ibilbidea Aizkorri mendiaren iparraldeko magalean gora joan eta Aizkorri-Aratz parke naturalean sartuko da. Biozkorniako lepora iritsitakoan, bidea gainetik behera amiltzen da, artzaintza eremu gozoak zeharkatuta, kareharrizko harkaitz ederrekin harmonia ederrean. Baso hostotsua bidelagun, azken tarteak Arantzazuko Santutegiraino eramango gaitu, Oñatitik hurbil.

***› DESCRIPCIÓN DE LA RUTA***
*Una vez dejado atrás el testimonio de la importante actividad de las ferrerías junto a las recién nacidas aguas del río Urola, superaremos el embalse de Barrendiola. Nuestro camino se encarama por las laderas septentrionales de la sierra de Aizkorri, adentrándose en el parque natural de Aizkorri-Aratz. Alcanzado el collado de la Biozkornia el camino se precipita atravesando verdes zonas de pastoreo conjugadas en bella armonía con el roquedo calizo. El tramo final, acompañado de un frondoso bosque nos conduce finalmente hasta el Santuario de Arantzazu, en las proximidades de Oñati.*

## Kilometro gutxitan...

**› Trenaren Euskal Museoa (Azpeitia)**
Iragana egiazko lurrun-tren batean biziberritzea, garai bateko tren-bidaien xarma guztia gozatzea, Industria Iraultzak ekarritako trenak ikustea eta antzinako tranbia elektrikoek nola funtzionatzen zuten ikastea; horra hor Trenaren Euskal Museoan bizi daitezkeen esperientzia paregabe batzuk. Zure irudimena dantzan utziko duen museoa. Argibideak, www.urolaturismo.net.

**› Burdin Harana-Lenbur (Legazpi)**
Burdinak mila urtetik gorako bidaia luzea egina du eskualdean. Zepategiak, burdinolak, presak, ubideak, meatzeak, labeak, tailerrak,… horra hor haranean han eta hemen sakabanatuta dauden arrasto fisikoen multzo ederra. Den-denak baliosak dira eta gure eskualdean industria-jarduera oso errotuta egon dela erakusten dute. Horrenbestez, gure bidean aurkitu beharreko altxor preziatuak dira. Argibideak, web www.lenbur.com webean.

**› Aralarko Parke Naturala eta Goierriko herriak**
Euskal Autonomia Erkidegoko mendigune handietako bat, Gipuzkoako hego-ekialdean kokatuta. Mendigoizale asko eta asko etortzen da Aralar aldera, gailur ezagunek (Txindokik, adibidez) eta altuerako larreek erakarrita, historiaurreko monumentu megalitikoak ahaztu gabe. Parkean, gainera, aisiarako eremuak daude, den-denak toki ezin hobeak natura bere ederrean gozatzeko. Inguruko herriak eta baserriak Gipuzkoako landazabalaren adierazgarriak dira, eta bisitariak berez erakartzen dituzte Aralar aldera. Argibideak, www.goierriturismo.com webean.

**› Ekainberri. (Zestoa)**
Ekaingo kobazuloa **Gizateriaren Munduko Ondare izendatua du UNESCOk.** Paleolito aroko labar artearen adibide bikaina da. Madeleine aldiko pintura-lan ikusgarriak zaindu eta babestu beharrak eraginda, Ekainberri izeneko erreplika bat eraiki da, jatorrizko haitzulotik hurbil-hurbil; 600 metrora, baizik ez. Argibideak, www.ekainberri.com.

**› Arantzazuko Santutegia (Oñati).**
Kareharrizko muino baten gainean Aizkorri Mendiaren oinetan eraikia, espiritualtasuna alde guztietatik darion toki honetan Arantzazuko Amabirjinaren irudia dago; Gipuzkoako zaindaria, alegia. Basilika munta handiko arkitektura, eskultura eta arte lana da, nazioartean izen handia duten hainbat artistak sortu eta landutakoa. Argibideak, www.turismodebagoiena.com eta www.tierraignaciana.com.

**› Loiolako Santutegia (Azpeitia)**
Monumentu eta erlijio gune handi hau San Ignazio Loiolakoaren jaiolekuaren inguruan eraikia dago; lur-azalera handia hartzen du, eta basilika handia da nabarmentzekoa, estiloz barrokoa, kupula handi batek koroatua. Basilika eraikitzeko erabili zen oinarrizko gaia kareharria da, aldameneko Izarraitz mendigune arrokatsutik hartutakoa. Argibideak, www.tierraignaciana.com eta www.urolaturismo.net.

**› Antioko Baseliza (Zumarraga)**
Herri arkitektura erlijiosoaren ale paregabea; ermiten katedrala esaten zaio. Kanpoaldea soila da eta nolabaiteko defentsa-izaera du. Kanpoaldean, hainbat gauza nabarmendu behar dira: XIV. mendeko atari erromanikoa; XV. mendeko handitze lanetan egindako kalbarioa; eta iparraldeko eta ekialdeko gezi-leihoak. Baina barrualdea da benetan nabarmentzekoa. Eraikuntza landatarra da, eta ezin hobeki uztartua daude harria eta zura. Argibideak, www.tierraignaciana.com eta www.urolagaraia.com webetan.

## *A pocos kilometros...*

***› Museo Vasco del Ferrocarril (Azpeitia)***
*Revivir el pasado a bordo de un auténtico tren de vapor, saboreando todo el encanto de los antiguos viajes de ferrocarril, descubrir los trenes que trajeron la Revolución Industrial o aprender cómo funcionaban los antiguos tranvías eléctricos, son algunas de las experiencias únicas que pueden vivirse en el Museo Vasco del Ferrocarril. Un museo que pondrá en marcha tu imaginación. Más información en www.urolaturismo.net.*

***› Valle del Hierro-Lenbur (Legazpi)***
*La historia del hierro en la comarca se remonta más de 1000 años atrás. Escoriales, ferrerías, presas, canales, hornos, minas, talleres,… forman un conjunto de restos físicos diseminados por la geografía del valle. Todos estos valiosos elementos que nos muestran el arraigo existente en la comarca a la actividad industrial con la que se relacionan, se presentan ante nuestros ojos como un interesante tesoro que descubrir en nuestro viaje. Más información en la web www.lenbur.com.*

***› Parque Natural de Aralar y los pueblos del Goierri***
*Es uno de los grandes macizos montañosos de la Comunidad Autónoma Vasca, situado al sudeste de Gipuzkoa. La presencia de cimas tan conocidas como Txindoki o los amplios pastizales de altura con presencia de monumentos megalíticos atraen a multitud de montañeros. Además, las zonas recreativas hacen del parque una zona ideal para el disfrute de la Naturaleza en un marco excepcional. Los propios pueblos y caseríos del entorno, representativos de la campiña guipuzcoana, son en sí mismos, importantes atractivos de Aralar para el visitante en general. Para más información, visitar la página web www.goierriturismo.com.*

***› Ekainberri. (Zestoa)***
*La cueva de Ekain, **declarada Patrimonio Mundial de la Humanidad por la UNESCO**, es una obra excepcional del arte rupestre de época paleolítica. La necesidad de preservar sus impresionantes pinturas magdalenienses han llevado a construir una réplica denominada Ekainberri a tan sólo 600 metros de la original. Más información en www.ekainberri.com.*

***› Santuario de Arantzazu (Oñati)***
*Enclavado sobre un promontorio calizo a los pies de la Sierra de Aizkorri, este lugar rebosante de espiritualidad alberga la veneración de la virgen de Arantzazu, patrona de Gipuzkoa. Su basílica se caracteriza por ser una obra arquitectónica, escultórica y artística de gran relevancia, en la que han trabajado eminentes artistas de renombre internacional. Más información en la web www.turismodebagoiena.com y en www.tierraignaciana.com.*

***› Santuario de Loiola (Azpeitia)***
*Este enorme complejo monumental y religioso, construido en torno a la reliquia que vio nacer a San Ignacio de Loiola, abarca una amplia extensión en la que destaca su gran basílica en estilo barroco, coronada por una gran cúpula. La piedra caliza, procedente del macizo rocoso del vecino monte Izarraitz es el material básico utilizado en su construcción. Más información en la web www.tierraignaciana.com y en www.urolaturismo.net.*

***› Ermita La Antigua (Zumarraga)***
*Ejemplar único de la arquitectura popular religiosa, ha sido denominada la catedral de las ermitas. De su austero exterior, de cierto carácter defensivo, destaca su portada románica del siglo XIV; el calvario realizado en las obras de ampliación del siglo XV; y las saeteras de las fachadas Norte y Este. Pero es su extraordinario interior lo más sobresaliente del templo. De rústica construcción, en él se produce una perfecta simbiosis entre la piedra y la madera. Más información en la web www.tierraignaciana.com y en www.urolagaraia.com.*

## www.senderismoeuskadi.net



**Deskargatu GPS ibilbideak .gpx formatuan edo fitxa teknikak ibilbiden deskripzioarekin eta mapak .pdf formatuan**

***Descarga de rutas para el GPS en formato .gpx o las fichas técnicas con la descripción de las rutas en formato .pdf***

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA
DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, INNOVACIÓN, COMERCIO Y TURISMO
EUSKADI

## Ostatuak
## *Alojamientos*

### › Nekazalturismoak *Agroturismos*

| | | |
|---|---|---|
| ANTZUOLA | IBARRE | 943 766 310 |
| AZKOITIA | LAJA | 943 853 075 |
| AZKOITIA | LANDAGARRE | 943 853 330 |
| AZKOITIA | ZULUETA | 943 853 549 |
| BERGARA | LAMAINO ETXEBERRI | 943 763 506 |
| ELGETA | BARRENENGUA | 943 768 221 |
| LEGAZPI | PASTAIN | 943 730 672 |
| OÑATI | ARREGI | 943 780 824 |

### › Landetxeak *Casas rurales*

| | | |
|---|---|---|
| ARETXABALETA | MITARTE GARAI | 943 791 751 |
| ARRASATE | ARTEAGA | 943 711 881 |
| BERGARA | ANDURI | 943 777 050 |
| ELGETA | EGUZKITZA | 943 789 084 |
| ESKORIATZA | AREANO | 943 714 470 |
| EZKIO-ITXASO | MANDUBIKO BENTA | 943 882 673 |
| LEINTZ GATZAGA | ATERBE | 943 715 037 |

### › Hotelak *Hoteles*

| | | |
|---|---|---|
| ARRASATE | ARRASATE ** | 943 797 322 |
| ARRASATE | MONDRAGON *** | 943 712 433 |
| ARRASATE | SANTA ANA *** | 943 794 939 |
| AZKOITIA | LARRAMENDI * | 943 857 666 |
| AZPEITIA | ARRUPE | 943 025 026 |
| AZPEITIA | LARRAÑAGA * | 943 811 180 |
| AZPEITIA | LOIOLA ** | 943 151 616 |
| BERGARA | ORMAZABAL ** | 943 763 650 |
| ELGETA | ELGETA | 943 789 107 |
| ESKORIATZA | AZKOAGA ENEA *** | 943 714 566 |
| ESKORIATZA | MENDIGOIA *** | 943 715 700 |
| LEGAZPI | MAULEON ** | 943 730 870 |
| LEINTZ GATZAGA | SORANETXEA *** | 943 715 398 |
| OÑATI | ETXE AUNDI * | 943 781 956 |
| OÑATI | SANTUARO ARANZAZU *** | 943 781 313 |
| OÑATI | ONGI * | 943 718 285 |
| OÑATI | SINDIKA * | 943 781 303 |
| OÑATI | SORALUZE ** | 943 716 179 |
| URRETXU | SANTA KUTZ | 943 725 959 |
| ZUMARRAGA | ETXEBERRI ** | 943 721 211 |

### › Pensioak *Pensiones*

| | | |
|---|---|---|
| ARRASATE | URIZAR ** | 943 791 293 |
| ARRASATE | UXARTE ** | 943 791 250 |
| BERGARA | ZABALA * | 943 764 257 |
| LEINTZ GATZAGA | GURE AMETSA | 943 714 952 |
| OÑATI | GOIKO BENTA | 943 781 305 |
| ZUMARRAGA | BALENTIÑA | 943 725 041 |
| ZUMARRAGA | UROLA | 943 533 046 |
| ZUMARRAGA | ZELAI | 670 264 922 |

### › Apartamenduak *Apartamentos*

| | | |
|---|---|---|
| LEINTZ GATZAGA | GAZTAINUZKETA | 943 715 164 |

### › Aterpetxeak *Albergues*

| | | |
|---|---|---|
| AZKOITIA | KUKUHERRI | 943 850 093 |
| AZPEITIA | XOXOTE | 943 581 007 |
| URRETXU | SANTA BARBARA | 686 476 100 |

### › Kanpinak *Campings*

| | | |
|---|---|---|
| LEGAZPI | LAKIOLA | 649 577 442 |

Turismo **Kalitatearen Konpromiso Aitortzearekin** establezimendua
*Establecimiento con **Reconocimiento de Compromiso con la Calidad Turística***



Kalitate handiko ostatuak
*Alojamientos de calidad*
© Basquetour

## Turismo aktibo
## *Turismo activo*

› **AKTIBA**
Euskal Autonomia Erkidegoko turismo aktiboko enpresen elkartea.
*Asociación de empresas de turismo activo del País Vasco.*
**T.** 944 389 868
**W.** www.aktiba.info

› **EN MEDIO SEGWAY**
Arrasate-Mondragón (Gipuzkoa)
**T.** 943 796 720 **M.** 617 469 546 **E.** en-medio@en-medio.com
**W.** www.en-medio.com

› **PAINTBALL ARRASATE**
Arrasate-Mondragón (Gipuzkoa)
**M.** 696 379 366 **E.** info@arrasatepaintball.com
**W.** www.arrasatepaintball.com

ignaziotar lurraldea tierra ignaciana

www.tierraignaciana.com

## Informazio guneak
## *Puntos de información*

› **Loiolako turismo bulegoa**
***Oficina de turismo de Loiola***
Santuario de Loiola, Azpeitia (Gipuzkoa)
*Santuario de Loiola, Azpeitia (Gipuzkoa)*
T. 943 151 878 E. i-loiola@urolaturismo.net
W. www.urolaturismo.net

› **Mirandaola Parkeko turismo bulegoa**
***Oficina de turismo Parque de Mirandaola***
Parque de Mirandaola, Legazpi (Gipuzkoa)
*Parque de Mirandaola, Legazpi (Gipuzkoa)*
T. 943 730 428 E. mirandaola@urolagaraia.com
W. www.urolagaraia.com

› **Urretxu Zumarragako turismo bulegoa**
***Oficina de turismo de Urretxu Zumarraga***
Urretxu (Gipuzkoa)
*Urretxu (Gipuzkoa)*
T. 943 250 681 E. turismoa@urolagaraia.com
W. www.urolagaraia.com

› **Debagoieneko informazio eta interpretazio zentroa**
***Centro de Información e interpretación de Debagoiena***
Santuario de Arantzazu, Oñati (Gipuzkoa)
*Santuario de Arantzazu, Oñati (Gipuzkoa)*
T. 943 718 911 / 943 796 463 E. turismo@debagoiena.net
W. www.turismodebagoiena.com

› **Oñatiko turismo bulegoa**
***Oficina de turismo de Oñati***
San Juan 14, Oñati (Gipuzkoa)
*San Juan 14, Oñati (Gipuzkoa)*
T. 943 783 453 E. turismo@oinati.org
W. www.oinati.org



Arrairanako Lapiaz
*Lapiaz de Arrraran*
© Fernando Solsona

# GR-120
## Hiru Tenpluen ibilbidea
## *Ruta del los Tres Templos*

Mapa: Geotech S.L. [www.geotech.es]




| # | Etapa *Etapa* | Zailtasuna *Dificultad* | Distantzia *Distancia* | Desnibel *Desnivel* | Denbora *Tiempo* |
|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Loiola - La Antigua | | 15,1 km | 835 m | 4:00 |
| 2 | La Antigua - Brinkola | | 16,5 km | 586 m | 4:00 |
| 3 | Brinkola - Arantzazu | | 10,7 km | 762 m | 3:30 |

## Gomendioak
## *Recomendaciones*

**1** Gomendagarria da mendi-ibilirako arropa eta bota egokiak erabiltzea, bai eta urtaroan urtarokoa erabiltzea ere.
*Se recomienda el uso de botas y ropa adecuada a la actividad del senderismo así como adaptada a la época en la que nos encontremos.*

**2** Komeni da beti janari zerbait eta ura eramatea, bai eta zer eguraldi egingo duen jakitea ere.
*Es conveniente llevar siempre agua, algo de comida e informarse sobre las condiciones meteorológicas.*

**3** Oso garrantzitsua da bertan bizi direnek, etorriko diren bisitariek eta natur inguruneak berak kexurik ez izatea gure ibilian erakutsi dugun portaeraz; beraz, itxi zeharkatzen dituzun atakak, ez zapaldu alor eta soroak, ez bota zure zaborrak ingurunean, ez eragozpenik sortu abereei, ez egin surik eta ez egin zaratarik.
*Es de suma importancia que la población residente, los futuros visitantes y el propio medio natural no lamenten nuestro paso por sus caminos y sendas; por ello cierra los portillos que encuentres a tu paso, no pises las parcelas cultivadas, no viertas tus residuos al medio, no molestes al ganado, no hagas fuego y evita los ruidos molestos.*

## Legenda
## *Leyenda*

- GR ibilbidea — *Sendero GR*
- Abiapunta / Helmuga — *Salida / Llegada*
- Bidegurutze — *Intersección*
- Interes duen tokia — *Punto de interés*
- Parke Naturala — *Parque Natural*
- Basoa — *Bosque*

## Sinbologia
## *Simbología*

**GR seinaleztapena**
***Señalización de GR***

| Ibilbidearen jarraipena *Continuidad del sendero* | Norabidearen bat-bateko aldaketa *Cambio brusco de dirección* | Norabide aldaketa *Cambio de dirección* | Norabide okerra *Dirección equivocada* |
|---|---|---|---|

**GR-120 Etapa 2**
**La Antigua-Brinkola**
16,5 km



Gipuzkoako paisaia
*Paisaje guipuzcoano*
© Mikel Arrazola